



LEHEN HEZKUNTZAKO 2. zikloa: IPUIN SARITUA

MIKEL ETA TXIMISTA BASAKABI MENDIRA. Nahia Beunza Erro

Duela 43 urte Leitzako etxe batean 28 urteko bikote bat bizi zen, Mikel eta Ainhoa. Biei asko gustazen zitzaizkien animaliak, horregatik, etxean basurde bat zuten, Tximisma izekena. Basurdea Tximista deitzen zen oso azkar korrika egiten zuelako. Tximistak zazpi urte zituen, baina Mikelek hilabete batekin aurkitu zuen eta etxera eraman zuen, mendian galduta zegoelako. Etxean Mikelek eta Ainhoak biberoia eman zioten. Sehaska bat erosi zioten han lo egiteko. Berarekin jolasten zuten eta hezi zuten. Mikel mendizale profesionala zen, ez zen mendizale arrunt bat, oso ezaguna zen mendiak Tximistarekin igotzen zituelako. Ainhoa munduko korrilarririk hoberena zen eta Tximistaren kontra lasterketak egiten zituen, Tximistak beti irabazten zuen.

Egun batean Mikelek eta Tximistak Basakabi mendia igo nahi zuten, baina Mikelek zalantzak zituen urte horretan elur pila egiten ari zuelako eta Basakabi mendian metro bat eta erdi elur zegoelako. Orduan Ainhoari galdetu zion:

—Ainhoa, gaur Basakabi mendia igo dezaket Tximistarekin?

—Noski, ez zaizu ezer gertatuko- erantzun zion Ainhoa.

Mikel Ainhoaz fidatzen zen. Orduan, Mikel Tximistarekin batera Basakabi igotzera joan zen. Tximista aurretik zihoan Basakabi mendia beste aldi batean igo zutelako, beraz Tximistak bidea gogoratzen zuen. Mikel, mendia igotzen ari ziren bitartean, argazkiak ateratzen ari zen eta behin eta berriro esaten zuen:

—Gero Ainhoari erakutsiko dizkiot!

Baina, bat-batean, Tximistak urrun elurbizi bat ikusi zuen eta oso azkar zetorren. Tximista, hain azkarra zenez, ez zuen harrapatu, baina, bere jabea, Mikel bai. Tximistak tristura handia sentitu zuen eta berehala konturatu zen Mikelen bizia bere esku zegoela. Zitzu bizian mendia jaitsi zuen eta Ainhoaren bila joan zen. Ainhoak, Tximista hain urduri ikusi zuenean, zerbait gertatua zela nabaritu zuen eta Tximistari inoiz baino azkarrago jarraitu zion. Mendia izugarri azkar igo zuten eta Ainhoa berehala konturatu zen Mikel elurbizi batek harrapatu zuela. Tximistak Ainhoari bere muturrarekin Mikel non zegoen erakutsi zion eta Ainhoa bere eskuekin zulo bat egiten hasi zen, baina Mikel ez zen agertzen. Ainhoa gero eta urduriago jartzen ari zen, Mikel ez baitzuen ikusten. Zuloak metro erdiko sakonera zuenean, Ainhoa zuloaren barruan sartu behar izan zen, bestela ezin zuen elur gehiago kendu, ez zelako iristen. Zuloa metro bateko sakonera izatera heldu zenean, Ainhoak eta Tximistak Mikelen eskua ikusi zuten eta izugarri poztu ziren. Burua ikusi zutenean, gainean zuen elur guztia kendu zuten, oxigenoa hartu ahal izateko, ia-ia ez zuelako. Ainhoak Mikel atera zuen tximista berarengana joan zen, asko pozten zela adierazteko. Ainhoak Mikel etxeraino besoetan eraman zuen, ezin zuelako oso ondo ibili. Hirurak etxera iritsi zirenean suaren ondoan eseri ziren, berotzeko, eta Ainhoak Mikeli esa zion:



EUSKARAZKO IPUINEN
XX. HAUR LEHIAKETA.
BERRIOZAR, 2016

—Ni naiz erruduna, Basakabi mendian ez zela ezer gertatuko esan dizudalako.

—Bai zera! Nire errua izan da argazkiak ateratzen joateagatik- erantzun zion Mikelek.

Orduan, Ainhoak esan zuen:

—Beno, ez du garrantzirik noren errua izan den, baizik eta ondo zaudela.

—Arrazoi duzu- esan zuen Mikelek.

Mikel, Ainhoa eta Tximistak, dena ondo atera zela ospatzeko, beraien lagun guztiak festa batera gonbidatu zituzten eta primeran pasatu zuten. Mikelek, elurbizi batek aurretik eraman eta gero, Tximistarekin mendira joaten jarraitu zuen. Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Leitzako plazan.